

TIPOLOGIA

1. GAIA: HIZKUNTZA TIPOLOGIA. Hastapenak

Ezaugarri formalei zein egiturei begira hizkuntzak antzekotasunen arabera sailkatzen dituen ikerkuntza adarra da tipologia. Hizkuntzaren alderdi formalari begiratzea eta aztertzea tipologia da.

1. HIZKUNTZA ETA HIZKUNTZAK.

Hizkuntzaz ari garela batasuna ikus daiteke unibertsaltasunaz ari garen heinean.

Hizkuntzarekin jaio garen heinean, hizkuntza horrek batasunera garamatza, baina hizkuntza asko daudenez horrek kontrakora ere eraman gaitzake. 6.000 hizkuntza inguru daude, hori aldakortasunarekin lotu dezakegu.

2. UNIBERTSALTASUNA ETA ALDAKORTASUNA.

Hizkuntza gaitasuna unibertsala da, eta gaitasun horri esker munduko edozein hizkuntzaz jabetzeko aukera izango dugu. Munduan zehar gabiltzala zerbait gailentzen bada hizkuntza asko direla da. Badira ezaugarri komun batzuk hizkuntza guztiek partekatzen dituztenak. Baina, hain direnez ezberdinak hizkuntzak, aldakortasunaren alderdia ere nagusitzen da. Alderdi batean unibertsaltasuna eta batasuna dago eta bestean aldakortasuna.

Gramatika unibertsala teoria sortzerakoan konturatzen gara badaudela zenbait *hatsarre* eta *parametro*, lehenengoak alderdi aldagaitzak eta bigarrenak aldakorak. Aldakortasuna azaldu nahian erabiltzen dira parametroak beraz.

Gramatikan alderdi aldagaitzak (hizkuntza guztietan ustez betetzen diren alderdiak) eta aldakortasunari zor zaizkion alderdiak (parametroak) bereizten dira.

Adibidez:

→ **Hizkuntza ergatiboa.** Hizkuntzak ergatibo edo akusatiboak izan daitezke eta horien arteko desberdintasuna hauxe da: hizkuntza ergatiboen kasuan aditza iragankorra denean, aditz-osagarrietako batek kasu marka ergatiboa eskatzen du, subjektuak alegia. Gainera, perpaus iragangaitzetako subjektua (S) eta objektua (O) berdin markatzen dira.

Hor daukagu aldakortasunaren adibide bat, hizkuntza ergatiboak dauden bezala akusatiboak ere badaude, eta hauetan nahiz eta aditza iragankorra izan subjektuak ez du kasu marka ergatiborik eskatzen. Hizkuntzak gauza batzuetan bat badatoz ere, beste batzuetan desberdintzen dira.

→ **Generoa.** Ezaugarri hau desberdin agertzen da hizkuntza guztietan. Euskaraz ez dago genero marka edo bereizketarik. Gazteleraz berriz, izenetan (*niño/niña*) Whaley-en teoriaren arabera, marka morfologikoei esker dakigu. Horien inguruan dagozkien artikulua, adjektiboak agertzen dira, dagokien generoarekin komunztadura egiten dutenak. 3. pertsona izenordainetan ere badago bereizketa (el/ella). Inglesez 3. pertsona izenordainetan soilik dago genero bereizketa.

- Euskaraz → Generorik gabea
- Gazteleraz → Genero gramatikala (él/ella, niño/niña)
- Ingelera → Genero naturala (he/she)

→ **Pasiboa.** Nahiz eta egiturak iragankorretik iragangaitzera aldatu, esaldian aurki ditzakegun rol tematikoak ez dira aldatzen. Aditzak iragankor izaten jarraitzen du nahiz eta egitura iragangaiztu (BOZA).

- Jon arregló el coche → El coche fue arreglado por Jon
S A O S A Adjuntu

Pasiboa eta aktiboa da bereizketa. Osagarria subjektu bilakatzen da. [Por Jon] hori ez da osagarri bat, ez da aditzak eskatzen duen argumentua, adjunktua da, ez baita beharrezkoa, ez baita aditzaren argumentuetako bat. Horregatik, Complemento Agente izena ez da erabat zuzena. Ez da konplementua (osagarria), ezabatu daitekeelako, besteak beste, baina bai agentea.

Esaldi aktiboan, **rol tematikoak** hauek dira: [Jon] egilea litzateke, eta [el coche] gaia. Pasiboan, [Por Jon] egilea litzateke eta [el coche] gaia. Rol tematikoak ez dira aldatzen pasibotik aktibora. Aktiboko osagarria pasiboan subjektua bihurtzen da, eta subjektua adjunktua.

AKT. PAS.
O → S
S → Adj

Te: Izenordain pertsonal azentugabea= klitikoa

Tú: izenordain pertsonal azentuduna

Osagarriaren markapen berezia: zuri ikusi dizut, genizugun...

- Has visto a Jon?
- si, **le** he visto

le → izenordain atono bat, klitiko datibo bat da, zehar osagarriarekin agertu ohi dena. Datiboak funtzio sintaktiko jakin bat adierazten digu, zehar osagarria, hiru argumentu ditugulako. Halere, kasu honetan ez da zehar osagarria, esaldian bi argumentu besterik ez ditugulako.

Frantsesa eta Italiara konparatzen

- (1) a. Jean arrivera Jean helduko da
 b. Gianni verrà Gianni etorriko da

Frantsesa vs. Italiara:

Subjektua aditzaren atzean koka daiteke (Subjektuaren inbertsioa)

- (2) a. Verrà Gianni etorriko da Gianni
 b. *Arrivera Jean helduko da Jean

Italieraz subjektua aditzaren ostean joan daiteke. Frantsesez ostera, ez da gramatikalki zuzena. Ez dute egitura berdina. Batean **subjektuaren inbertsoa** egin daitekeelako eta bestean ez.

Italieraz subjektua isildu egin daiteke baina frantsesez ez. Ezaugarri berari dagokionez modu batera edo bestera parametro bat finkatzen duten hizkuntzak.

- (3) a. Verrà etorriko da
b. *Arrivera helduko da

Aditz jokatu bat dago. Subjektua isilpean dago, baina hala ere badago subjektua. 3b-n aditz jokatu bat daukagu, baina ez-gramatikala da. Subjektu bat behar du. Parametroa beraz, subjektua isilpekoa izatea da, lehenengoan posible da.

- (4) a. Il pleut euria egiten du
b. Piove

Il izenordain **espletiboa edo betegarria** da. Frantsesean il subjektua da, baina ez dago egilerik, subjektuaren hutsunea betetzeko ageri da. Frantsesak ezinbestean eman behar digu subjektua.

Italieraz subjektu isila daukagu, frantsesez ordea, espletiboa (betegarria). Betebehar sintaktiko bat dago horren atzean, bertan ez dagoenez egile semantiko zehatzik, betegarri bat jartzen dugu. Frantsesa subjektua isiltzeko gai ez den hizkuntza da. Hortaz, hizkuntza honek eskatzen du subjekturik ez ezabatzea sintaktikoki.

Aditz meteorologikoetan ez dago egilerik, rol tematikorik. Hau da subjektu ez tematikoak ditugu.

Subjektu isilaren parametroa:

Italiera subjektu isileko hizkuntza da (parametro hori dauka). Subjektu isileko hizkuntza batean, subjektua ez dago agerian. Subjektu isileko hizkuntza bat bada, subjektua isiltzeaz gain, subjektu inbertsioa ere badu.

Frantsesa ez da subjektu isileko hizkuntza. Frantsesek bete beharra dute subjektuaren hutsunea. Halabeharrez eman behar digu subjektua. Perpaus batean sintaktikoki subjektua beti egon behar denez, semantikoki ageri ez denetan (subjektu tematikorik ez badago) **subjektu espletiboa edo betegarria** erabili beharko da. Ezin ditu subjektu tematikoak isildu. Ez du subjektu inbertsiorik onartzen.

- Jon bezelako subjektu bat tematikoa da. Ikusi dugun il horrek ez du rol tematikorik (ez da egilea), horregatik behar da subjektu espletiboa.
- **INGELESEAN** ezta ere ezin da isildu

Sagarrak saltzen dira: esaldi honetan rol tematikoa dago (subjektu tematikoa). Argumentu bat kentzen zaio → BOZA.

Parametroak hizkuntzetara finkatzen dira. Hizkuntza espezifikoetan parametroen balioak esleitzen zaizkie.

Parametroak hizkuntzak bereizten dituzte sistema bitarrean. Subjektu tematikoa onar dezake ala ez. Kluster bat dago, ezaugarri sorta bat.

EUSKARA: HITZAREN MORFOLOGIA

Forma sintetikoa (Hitz bakarrean morfema batzuk) vs **forma analitikoa** (etorri naiz→ gutxienez 2 hitz bereizten ditugu). Sintetikoaren barruan **Polisintetikoak**. Morfema lexikoak zein morfema gramatikalak batuko dira. Are sintetikoagoak dira

- *d-a-kar-ki-zu-t*. Aditz erroa alde batera utzita, gainerako morfemak gramatikalak dira.
- Parkean vs en el parque. Gaztelera analitikoa da (hitz bat baino gehiago)

Euskara, honez gain, **hizkuntza eranskaria** da: erro bat daukagu eta horri erantzen zaizkion morfemak daude. Eransteko gaitasuna dugun heinean, forma sintetikoagoak sortzen dira. Hizkuntza eranskari batean morfema bakoitzari zeregin bat dagokio, latinean, ez da horrelakorik gertatzen ez baita hizkuntza eranskaria. Euskara eta gaztelania alderatuz esan daiteke euskara hizkuntza sintetikoagoa dela.

Tipologia hirukoitza.

Hitzaren formari begiratuz hiru hizkuntza mota bereiz ditzakegu

- **Isolatzailea:** Analitikoak direnak
 - Formak aldaezinak dira
 - Ez dago inflexioaren arrastorik
 - Hitzeko morfema bat
 - ADB: Vietnamera.
- **Eranskariak:** Sintetikoak dira
 - Morfemak kateatzen ditugu
 - Morfema asko biltzen dira hitz bakarrean aldagaitzak direnak
 - ADB: Euskara
- **Malgukariak:** Polisintetikoak dira.
 - Formak aldagarriak direnean. Hizkuntza flexibo deitu ohi izan zaie.
 - Sinkretismoa: Forma morfologiko berak askotariko adierazpen abstraktuak ditu. Latinez etengabe gertatzen da, forma bakarrak gauza bat baino gehiago adierazten du. Latinez, *rosa* bokatiño, ablativo eta nominatibo. Euskaraz morfema bakoitzak bere esanahi propioa du. Latinaren kasuan forma aldakorrak.

(3)	Singular	Plural
Nominatiboa	rosā	rosae
Bokatiboa	rosā	rosae
Akusatiboa	rosām	rosās
Genitiboa	rosae	rosārum
Datiboa	rosae	rosīs
Ablatiboa	rosā	rosīs

→ Beraz, bi parametro daude, **malgukaritasuna** eta **sintetikotasuna**

Alabaina, hizkuntza polisintetikoaren artean bi mota bereizi beharko genituzke: **polisintetikoak** eta **inkorporatzaileak**. Adibidez, txuktxiera hizkuntza polisintetikoa da eta inkorporatzailea:

(5) <i>tə-</i>	<i>meɣə-</i>	<i>levtə-</i>	<i>pəɣt-</i>	<i>rkən</i>
1sg.SUB	great	head	hurt	1sg.INP
'I have a fierce headache.'				(Comrie 1981: 74)

Askotariko morfema lexikoak batzeko aukera ematen digu txuktzierak, euskarak morfema gramatikalak batzekoa ematen digun bitartean. Sintaxiak horrelako esaldiak sortzeko mekanismoa ematen digu.

Polisintesiaren parametroa. Ingelera eta Mohawkera aztertzen

(2) a. Sak Sak	ranuhwe's likes	ne the	atya'tawi dress		
b. Ranuhwe's likes		ne the	atya'tawi dress	ne (the)	Sak Sak
c. Ranuhwe's likes		ne (the)	Sak Saki	ne the	atya'tawi dress
d. Sak Sak	ne the	atya'tawi dress			ranuhwe's likes

Hizkuntza ezkonfigurazionalak. Askotariko hitz hurrenkerak onartzen dituzten hizkuntzak. SAO (2a) AOS (2b). ASO (2c). SOA (2d).

Subjektu eta aditzak isil ditzake:

Tipologikoki euskararentzat ez da hain harrigarria osagarri zein subjektuak isil ditzakegulako. Adibidez: *ekarri dizkizut*

(3) a. Ranuhwe's likes	ne the	atya'tawi dress	[<i>edo</i> Atya'tawi [i.e. ¹ He likes the dress]]	ranuhwe's]
b. Sak Sak	ranuhwe's likes		[<i>edo</i> Ranuhwe's ne Sak] [i.e. Sake likes it]	
c. Ranuhwe's likes			[i.e. He likes it]	

Argumentu bat isilean gelditzen da. Lehenengoan, subjektua isilarazten da. Bigarreanean, osagarria. Azkenengoan, subjektu eta osagarria. Isiltzen da, baina bertan jarraitzen du

Zein hizkuntzetan ezkutatu ditzakegu subjektua zein osagarria?

Gaztelera: Uxue has recogido los platos?

*Si, si he recogido → Euskaldun batzuen gaztelania.

Si, si los he recogido → *los* hori behar dugu, osagarri funtzioa betetzen du. *Los* pertsona izenordaina da, maskulino plurala, atonoa, akusatiboa. Osagarri funtzioa du, akusatibo kasua du.

Gaztelaniaz ezin dugu osagarria ezkutatu, *los* hori agerian egon behar da. Osagarria isiltzen badugu perpaus ez-gramatikala sortuko genuke. Pertsona izenordain atonoei **klitiko**a deitzen diegu. Ondorioa: gaztelanian ezin da osagarria isildu Mohawkeran bezala.

Le datiboa da eta lo akusatiboa.

Euskaraz subjektua, osagarria eta zehar osagarria isil daitezke. Subjektu isileko hizkuntza da.

Adb: *ekarri dut* (isilpean daude bi argumentu horiek)

ekarri dizut (isilpean hiru argumentuak; subjektua, osagarri zuzena eta zehar osagarria)

Izen inkorporazioaz

Forma analitikoa sintetiko bihurtu da eta hitz-hurrenkera aldatzeaz gain, izena inkorporatu egin da. Hizkuntza polisintetikoetan bereziki gertatzen den fenomeno bat da.

Determinatzailea desagertu egiten da. Izena (meat) lekuz aldatu.

(5) a.	Owira'a baby	wahrake' ate	ne the	o'wahru meat
b.	Owira'a baby	waha'wahrake meat-ate		

5a. Aditz iragankorra, 2 argumentu; Subjektua eta osagarria. Rol tematikoa; egilea (subjektua), gaia (osagarria).

5b. osagarria aditzarekin elkartu, hiz berri bat sortzen da. Egitura iragangaiztu egin da, argumentu bat inkorporatu baita.

Euskaraz *haragi-jan* + flexioa gisa itzuliko genuke, kategoriara begira aditz bat alegia. Zerbait gehiago badauka halere, izena jada ez da osagarri zuzen beregain bat, aditzari inkorporatu zaio Aditzaren buruarekin bat egin duen beste buru bat da. Izen inkorporazioaren ondorioz gertatzen den fenomeno. Oraindik ere aditza da baina. Morfema anitzeko hitzak sortu dira polisintesiaren ondorioz, bi morfema lexikal batu dira hitz bakarrean.

Inkorporazioari esker egitura iragangaiztu da, lehen bi argumentu genituen eta orain bakarra.

Izen inkorporazioaren murriztapena

(7) *Wahawirake' baby-ate	ne the	o'wahru meat
------------------------------	-----------	-----------------

Subjektua ezin zaio aditzari inkorporatu. Osagarri den izena bai baina subjektu den izena berriz, ez.

7k eta 5ek duten desberdintasuna da, 5-en osagarrigunean dagoen izena inkorporatu zaiola aditzari eta subjektua beregaina dela. Hemen ikusten duguna inkorporatu dena subjektua dela da, eta ezin da gertatu.

EGITURA ARAZLEAK

Egitura arazleak euskaraz

(1) a.	Jon etorri da.
b.	Anek Jon etorrarazi du.
c.	Anek Jon aipatu du.

1a. Egitura iragangaitza, argumentu bakarra du.

1b. Argumentu bat gehitu da, eta nahiz eta mendeko aditza iragangaitza izan, egitura arazlearen ondorioz iragankortu egin da. Kasu markapenari dagokionez, argumentu bat gaineratzean ergatibo marka agertzen da.

Aditza iragangaitza baldin bada, IZAN hautatzen da, egitura arazle iragankorrean, **edun* hautatu da. b-n gaineratu dugun argumentuaren rol tematikoaz hitz egiteko, arazleaz arituko gara. Ane arazleak *Jon* arazi du.

(2) a.	Jonek liburua irakurri du.
b.	Anek Joni liburua irakurrarazi dio.
c.	Anek Joni liburua eman dio.

2a. Bi argumentu, egitura iragankorra da.

2b. Egitura arazlea. Mendeko egitura iragankorra badu, hiru argumentu ditu edo **ditrantsitibo**. Kasu markapenari dagokionez, 2b egitura arazlean datibodun osagarri bat ageri da.

- (3) a. Jonek Aneri liburua eman dio
b. Jonek Aneri liburua emanarazi dio Asierri

3b-k lau argumentu ditu. Jonek arazlea, Aneri arazia, liburua gaia eta Asierri helburua.

2. GAIA: HIZKUNTZA ALDAKORTASUNA NOLA AZTERTU. Hitz hurrenkera

Hizkuntza tipologia eta gramatika sortzailea

Aldakortasunean zein unibertsaltasunean dihardute lanean hizkuntza tipologia zein gramatika sortzaileak. Gramatika sortzaileak batasuna lehenesten du hizkuntzetan. Hizkuntza tipologia, aldakortasunei begiratzen die gehiago. Hizkuntza beraren definizioan ez datoz bat. Gramatika sortzailearentzak barne-hizkuntza lantzen du, teorikoki funtzionatzen du, hizkuntzaren barruko egiturekin (errezeta). Hizkuntza tipologiarentzat lagin konkretuen arteko aldakortasunak gailentzen dira, kanpo-hizkuntza.

Hizkuntzaren inguruko definizioa bera eremu batetik bestera ezberdina da. Bakerren teoria: ogia lagina edo errezeta izan daiteke, batek aukeratuko du lagina edo errezeta eramango duen. Hizkuntzaren inguruko definizioa eraman daiteke Bakerren hipotesi hau. Edo **lagintzat** hartzen dugu edo **errezetatzat**.

Lagina hizkuntzaren gurutzapena da, zertan ikusten dugun hizkuntza. Adb: grabazio bat egin eta hori transkribatu, hori hizkuntzaren lagin bat izango litzateke. Beste adb. bat da berrian euskaraz idatzita dagoena, hori euskararen lagina litzateke. Euskararen lagina, euskaraz ekoizita dagoen guztia edo ekoitz daitekeena. Adb. Etxepareekin hasi gaur arte idatzi diren liburu guztiak.

Lagina hizkuntzaren azterketan. Adb. aurreko urtean grabazio bat egin genuen eta hura aztertu genuen, lagin bat hartuz hizkuntza aztertu genuen. Dialektologian, eremu dialektal bat hartuz, testu bat askotariko ikuspuntutetatik analizatu (fonologikoki, sintaktikoki, etab.)

Hizkuntzaren aldakortasuna aztertzeko hitz hurrenkeran oinarritu gaitezke.

Ikusi dizut → nik zuri zerbait, nor nori nork (3 argumentu). Nik zuri aurpegia ikusi dizut. → egitura ditransitiboa da. Funtzio sintaktikoak: subjektua, zehar osagarria, osagarri zuzena. Rol tematikoa: egilea, ???, gaia. Ergatiboa, datibo eta absolutiboa.

Ikusi zaitut → ikusi aditzak 2 argumentu ditu (aditz iragankorra). nik zu, nor nork iragankorra den aditz bati ditransitibo izaera ematen diogu.

Ikusi dizut vs ikusi zaitut: bietan 2 argumentu daudela esaten badugu. Inflexioa da aldatzen dena. Nik zuri (ergatibo-datibo) izango litzateke ikusi dizuteko argumentu egitura eta nik zu (ergatibo-absolutibo) ikusi zaitutekoa.

Horrelako formak aztertzeko lehenengo argumentuak zein diren ikusiko dugu eta ondoren ezartzen zaizkien konmutadurak. Aditz laguntzaileetan ikusiko da konmutadura desberdintasun hori. Fenomeno hau hizkuntza tipologian **osagarriaren markapen bereizgarria** deritzana da. Euskaraz fenomeno dialektala izateaz gain, munduko hizkuntza askotan antzeko gertakaria gertatzen da, fenomeno tipologiko bat dugu hor.

Gaztelanian osagarri zuzen batzuek datibo marka hartzen dute:

- **Leismoa.** osagarri zuzena dagoen lekuan datiboaz adieraztea. Has visto a Jon? Si, **le** he visto
 - Le: pertsona izenordai atono (klitikoa), singularra, osagarri zuzen funtzioa du. **Le** hori datiboa da, baina akusatiboa espero da eta hori **lo** da. Espero ez den kasu marka bat erabiltzen da. Hizkeretan gramatikala da, baina hizkera kanonikoan (euskara arautuan), ez da onesten. Forma arautuak ez izateak, ez du esan nahi existitzen ez denik.
 - **Le datiboa da eta lo akusatiboa. Euskaraz ikusi dizut horrekin antzeko zerbait gertatzen da, datiboa sartzen dugu absolutiboa? ordez.** Osagarriaren markapen bereizgarria izango litzateke beraz.

Laginekin lan egiteak bi ikerbide hautatzera garamatza.

- Induktiboa. Evidentzia enpirikoen (laginen) bitartez, ageriko datuei begiratzuz egia eraiki. Tipologian erabiltzen da.
- Deduktiboa. Teoria bat ezartzen da. Gramatika sortzailean aritzen direnek. Hipotesi sorta bat.

X̄ teoria: Perpausa nola egituratzen den Edozein sintagmaren gaineko azalpena izatea espero da (edozein hizkuntzatan). Teoria hau erabiltzean, ez gara sintagma bat soilik teorizatzen ari, horretaz gain, hitz hurrenkerari buruzko hipotesi bat daukagu. Teoriak teoriez ordezkatu. Greenberg-en arabera, bertatik ateratzen dira lege unibertsalak. Gramatika sortzailetik, gramatika unibertsala eraikitzeke horretan.

Hitz hurrenkera

Induzikorki hitz hurrenkera aukera logikoak lagin baten baitan.

- S A O → gaztelera, ingelesa
- S O A → euskarazkoa, Japoniera, Ketxuera
- A S O → galeseraz
 - Lehenengo hauek komunean duten ezaugarria: osagarria subjektuaren ostean
- O S A
- O A S
- A O S

Hitz hurrenkera guzti hauen artean bat **kanonikoa** edo **ez- markatua** da. SOA euskaraz.

Gaztelera euskara eta galeseraren hurrenkerak alderatzen baditugu, subjektua beti objektua baino lehenago kokatzen dela ikusiko dugu.

Greenberg-ek hiru elementu hauek aztertu zituenean, 30 hizkuntzako laginarekin egin zuen lan. Tomlin-ek 402 hizkuntzako laginean, hizkuntza portzentaia:

- SAO: 42
- SOA: 45
- ASO: 9
- AOS: 3
- OAS: 1
- OSA: 0

Greenbergen bi unibertsal linguistiko:

4 unibertsala: "Maiztasun ikaragarriaz, SOA hitz hurrenkerako hizkuntzak postposiziodunak dira."

1 unibertala: "Subjektua eta osagarria duten baiezkotasunaren perpausetan, hurrenkera nagusian subjektua osagarria baino lehenago kokatzen da ia beti.

3. GAIA: ERGATIBOTASUNA

Ergatibotasunaren parametroak bi hizkuntza mota bereizteko aukera emango digu. Ergatibotasunak zerikusia dauka subjektuen eta osagarrien markapenarekin.

- **Sistema neutroa:** Hiru argumentuak berdin.
- **Sistema hirukoitza:** Hiru argumentuak ezberdin.
- **Sistema ergatiboa:** S eta O berdin. A ezberdin.
- **Sistema nominatibo-akusatiboa:** S eta A berdin, O desberdin. Subjektua osagarritik bereizten da.

1.2 Oinarrizko kasu sistemak

(1) a. Anguti-p puisi aallaavaa
gizona balea tirokatu-IND.IRGK.3SG.3SG
'Gizonak balea tirokatu zuen'

b. Puisi kivivuq
balea hondoratu-IND.IRGG.3SG
'Balea hondoratu zen' (Bittner & Hale 1996)

Groenlandiako mendebaldeko inuitera (familia eskimo aleutiarra, Groenlandia)

(3) a. Waitna ba sula ba-ra sab-an
gizona oreina tirokatu-IRGN.3SG
'Gizonak oreina tirokatu zuen.'

b. Sula ba plap-an
oreina korritu-IRGN.3SG
'Oreinak korritu zuen' (Bittner & Hale 1996)

Miskitoera (txibtxa-paez familiako hizkuntza, Nikaragua)

(1) A (Anguti-p) eta S (puisi) bereizi. S eta O berdindu. A, S eta Otik bereizten da. Euskara bezalako hizkuntza. Iragankorreko perpaus batean subjektuari ezartzen zaion marka da ergatiboa, inuiteraz *p* da kasu markatua, subjektu biak bereiziz eta osagarria iragangaitzeko subjektua bezala markatuz. Ergatiboa Ak duen marka, Absolutiboa S/O-k.

Absolutiboa iragankorreko objektuari ez ezik iragangaitzeko subjektuari ere ezartzen zaion kasua.

(2) *sula ba-ra* → O markatua dago. Perpaus iragankor eta iragangaitzetako subjektuak ez ditu markatzen, S eta A berdin, Ø marka hartzen dute. Sistema **nominatibo-akusatiboa** da. Kasu markatua (-ra) objektuari ezartzen zaiona da (akusatiboa), kasu ez-markatua (Ø) subjektuari ezarritakoa (nominatiboa).

Hitz hurrenkera posible asko, nagusiak nominatibo-akusatibo eta ergatibo-absolutiboa.

Hizkuntza mota nagusiak:

- **Nominatiboa:** Iragankorreko zein iragangaitzeko subjektuari jartzen zaion marka.
- **Akusatiboa:** Iragankorreko objektuak daraman kasu-marka, hizkuntza nominatibo-akusatiboetan.

- **Ergatiboa:** iragangaitzeko subjektua eta iragankorreko subjektua desberdin markatzen dira. Irangangaitzeko subjektua eta osagarria berdintzen ditu. S/O berdin, A desberdin
- **Absolutiboa:** perpaus iragankor baten objektuak, eta iragangaitz batean subjektuak hartzen duen kasu marka.

Querer: aditz iragankorra, subjektua eta OZ hartuko ditu argumentu gisa. Subjektuak berdin markatzen baditu ezin daiteke ergatiboa izan.

Yo paseo de noche: Egitura IRGG

Yo te quiero: Egitura IRGK, bi argumentu.

- Yo: pertsona izenordaina
- te: pertsona izenordain klitiko

*Yo quiero tú. Zergatik da perpaus agramatikala?

Nominatibo kasua ezin dezake eraman osagarri batek, eta yo eta tu biek ala biek nominatiboa daramate. Hizkuntza nominatibo-akusatiboetan, nominatiboa ez markatua izaten da. Beraz batak bestearen papera hartzen du.

Beraz, yo eta te kasudun pertsona izenordainak izango dira:

- Yo: pertsona izenordain tonikoa + kasu nominatiboa
- te: akusatiboa.

Ni-k zu-ri ikusi dizut → Sistema hirukoitza. Normalean ez dugu sistema hau aurkitzen ez badago ergatibotasunarekin kontaktuan. Osagarriaren markapen bereizgarriaren fenomeno

Yo quiero a Jon: a hori, akusatiboa edo datiboa izan daiteke. Bizidunak diren osagarriei jartzen zaien marka. Osagarriaren markapen bereizgarria da beraz, eta ezaugarri hau duten hizkuntzek datiboa erabiltzen dute hau markatzeko.

Euskaraz → S eta O batera eta A bananduta.

Nik (A) Jon (O) ikusi dut. → Aditz iragankorra, 2 argumentu daude.

Ni (S) etorri naiz. → Aditz iragangaitza, argumentu bakarra.

S eta O berdin markatzen direla esan dugu NOR edo absolutibo marka dutelako. A, berriz, ergatibo markarekin markatzen da, NORK markarekin. -k marka ergatiboarena da, Ni eta Jon horretan dugun marka Ø da eta hori absolutiboarena da. Hizkuntza ergatiboetan kasu markatua izan ohi da ergatiboa, eta kasu ez markatua edo markatu gabea absolutiboa. Hori horrela da euskaraz, beraz, hizkuntza ergatiboa (ergatibo-absolutibo ere esaten zaie) da.

X hizkuntza ergatiboa da morfologikoki edo sintaktikoki ere bada ergatiboa?

(1) a.	ɲuma aita	banaga-n ^y u itzuli-ezgeroa		
	<i>'Aita itzuli zen.'</i>			
b.	yabu ama	banaga-n ^y u itzuli-ezgeroa		
	<i>'Ama itzuli zen.'</i>			
c.	yabu ama	ɲuma-ɲgu aita	bura-n ikusi-ezgeroa	
	<i>'Aitak ama ikusi zuen.'</i>			
d.	numa aita	yabu-ɲgu ama	bura-n ikusi-ezgeroa	
	<i>'Amak aita ikusi zuen'</i>			

a. perpausa: Argumentu bakarra, iragangaitzeko subjektua, ze kasu duen jakiteko iragangaitzeko argumentua beharko genuke. Predikatu iragangaitzekoa da. Absolutibo marka: 0

b. Perpausa: iragangaitza, absolutibo marka dauka: 0: absolutiboa bada ergatiboa izango da hizkuntza.

c. perpausa: Aditz iragankorra, bi argumentu, subjektua aita eta osagarria ama. Osagarriak ez dauka ageriko markarik eta subjektuak ageriko marka dauka.

d. perpausa: iragankorra, 2 argumentu, subjektuak ageriko marka eta osagarriak ez.

Iragankorreko subjektua eta iragangaitzeko subjektua ez dira berdin markatzen. Hizkuntza ergatibo baten aurrean gaude. S-ak absolutibo marka, subjektuak 1.c adibidean ergatibo marka dauka.

Baina hori horrela da hizkuntza morfologikoki ergatiboa dela, horrek ez du esan nahi hizkuntza nahitaez sintaktikoki ere ergatiboa izango dela. Orain arte ergatibotasuna kasu-markaketarekin lotzen genuen, baina ergatibotasun morfologikoaz ari bagara kasu-sistemari begiratu behar diogu, baina alderdi sintaktikoari begiratuta kasu isilak nola interpretatzen diren ikusi behar dugu.

Hizkuntza ergatiboa da. Azti hurrenkerarekin!!!

Djirbaleraren mintzagai kateatzea. Hizkuntza ergatiboa da morfologikoki. S/O vs A. pibotea

(2) a.	ɲuma aita	banaga-n ^y u itzuli-ezgeroa	yabu-ɲgu ama	bura-n ikusi-ezgeroa
	<i>'Aita itzuli zen eta amak ikusi zuen (aita)'</i>			
b.	ɲuma aita	yabu-ɲgu ama	bura-n ikusi-ezgeroa	banaga-n ^y u itzuli-ezgeroa
	<i>'Amak aita ikusi zuen eta (aita) itzuli zen'</i>			

2a. Perpaus iragankorrean osagarria ez da agertzen esplizituki. Alboko perpausoko 'aita' argumentuaren arabera dakigu erreferentekidea dela.

2b. Bigarren perpaus elkartuan, (aita)-ren funtzio sintaktikoa S da, O-ren erreferentekidea izan behar du.

Bi argumentu ditugu, ezin da ergatiboaren indizekide izan.

Djirbalera morfologikoki ergatiboa dela ikusi dugu, baina hizkuntza sintaktikoki ere ergatiboa izan daiteke. Hizkuntza honetan osagarria Sren arabera interpretatzen da. O eta S modu berean interpretatzen badira, hizkuntza horrek jokatzeko duen ardatza S/O dela esango dugu eta horri *pibotea* deritzo.

Egitura antipasiboa

Nola identifika dezakegu antipasiboa? BOZ mekanismoa da, eta mekanismo horretan argumentu bat kenduko da morfema antipasiboaren bitartez (markapen morfologikoari adi egon behar gaitzaizkio), egitura iragangaiztuz. Beraz, morfema iragangaiztzailea da.

(3)	a. yabu ama 'Aitak ama ikusi zuen'	ɲuma-ɲgu aita	bura-n ikusi-ezgeroa
	b. ɲuma aita 'Aitak ama ikusi zuen'	bural-ɲa-n ^y ikusi-?-ezgeroa	yabu-gu ama-DAT

3a. Bi argumentu, ergatibo eta absolutiboarekin markatuta hurrenez hurren. Aditz iragankorra.

3b. *aita* absolutiboarekin markatuta. Iragangaizteko subjektua, argumentu bakarra.

3b-n aditzarekin batera egitura iragangaizten duen morfema bat dugu. Hastapeneko egitura iragankorra bada, eta morfema baten bitartez iragangaiztu. *ama* adjunktu bihurtu eta A → S bihurtu. Beraz, argumentu bakarra dugu eta *ama* sintaktikoki beheratu egin da.

Egitura antipasiboan gertatu dena:

- Morfema antipasiboa
- Iragankorreko subjektua (A, erg) → Iragangaizteko subjektu (S, abs)
- Osagarria (abs) → Adjunktu (dat)
- Rol tematikoak ez dira aldatzen, aldaketek funtzio sintaktiko eta kasuei eragin diete.

(4)	a. ɲuma aita 'Aita itzuli zen eta ama ikusi zuen'	banaga-n ^y itzuli-ezgeroa	bural-ɲa-n ^y ikusi-?-ezgeroa	yabu-gu ama-DAT
	b. ɲuma aita 'Aitak ama ikusi zuen eta itzuli zen'	bural-ɲa-n ^y ikusi-?-ezgeroa	yabu-gu ama-DAT	banaga-n ^y itzuli-ezgeroa

Mintzagai kateatzearen bitartez, juntatutako bi egitura ditugu.

- Bi egitura iragangaiztuz kateatzen dira. Bata egitura iragangaiztzailea eta bestea egitura antipasiboa (edo iragangaiztzailea). Kategoriaz isila egitura antipasiboaren hasieran dago, subjektuari (S) dagokion lekuan. Iragangaizteko subjektu bat interpretatzen dugu iragangaizteko subjektuaren arabera.
- Egitura antipasiboa eta iragangaiztzailea. Lehenengoan adjunktua eta subjektu bat ditugu. Bigarrenetan kategoriaz isileko elementu bat, subjektuaren erreferentekidea dena, hau da, egitura antipasiboan dugun argumentu bakarrarekin indizetu daiteke.

Antipasiboaren BOZA beti marka morfologiko bati esker agertzen da.

BOZ mekanismoetan **goratu** edo **beheratu** egin daitezke argumentuen estatusak. Kasu honetan S goratu egin da eta O beheratu.

Egitura arruntak dira, ez mintzagai kateak.

Djirbaleraren bestelako kasu sistema. Ergatiboa den hizkuntzan aurki daitezke beste sistema batzuk.

→ 2 kasu sistema

→ Sintaktikoki ergatiboa

(5) a.	ɲana gu guztiok	banaga-n ^y u itzuli-ezgeroa	
	'Gu guztiok itzuli ginen'		
b.	n ^y urra zuek guztiak	banaga-n ^y u itzuli-ezgeroa	
	'Zuek guztiak itzuli zineten'		
c.	n ^y urra zuek guztiak	ɲana-na gu guztiok	bura-n ikusi-ezgeroa
	'Zuek guztiak gu guztiok ikusi gintuzuen'		
d.	ɲana gu guztiok	n ^y urra-na zuek guztiak	bura-n ikusi-ezgeroa
	'Gu guztiok zuek guztiak ikusi zintuztegun'		

5a. iragangaitza, argumentu bakarra. Argumentua: gu guztiok. Iragangaitzeko subjektua

5b. argumentu bakarra, aditz iragangaitza. iragangaitzeko subjektua.

5c. iragankorra. 2 argumentu ditu: iragankorreko subjektua eta iragankorreko osagarria

5d. iragankorra. 2 argumentu ditu: iragankorreko subjektua eta iragankorreko osagarria

Hizkuntza EZ ergatiboa da: osagarria eta iragangaitzeko subjektuak ez dute kasu bera. Ez dira desberdintzen iragankorreko eta iragangaitzeko subjektuak, biek markapen berdina (∅)

Nominatibo-akusatiboa da: iragankorreko subjektuak eta iragangaitzeko subjektuak marka bera dute eta osagarriak kasu-marka desberdina du.

Hizkuntza ergatibo batean "split ergativity" edo ergatibotasun erdibitua, hizkuntza baten barruan sistema ergatibo bat eta sistema akusatibo bat. Hizkuntza honetan sistema akusatiboa pertsona izenordainekin gertatzen da.

2.5. Djirbaleraren mintzagai kateatzea (eta II)			
(6) a.	ɲana gu guztiok	banaga-n ^y u itzuli-ezgeroa	n ^y urra zuek guztiak
	bura-n ikusi-ezgeroa		
	'Gu (guztiok) itzuli ginen eta zuek guztiak gu (guztiok) ikusi gintuzuen'		
b.	n ^y urra zuek guztiak	ɲana-na gu guztiok	bura-n ikusi-ezgeroa
	banaga-n ^y u 'Zuek guztiak gu (guztiok) ikusi gintuzuen eta gu (guztiok) itzuli ginen'		

6a. Egitura iragangaitzeko argumentu bakarrak ez du ageriko markarik. Bigarren perpausean osagarri ez da azaltzen, kategoria isila da. Kategoria isil hori iragangaitzeko perpauseko subjektuaren indizekidea da (S

eta O indizekide)

6b. 1. egitura iragankorra da: argumentu esplizitu 2 ageri dira: iragankorreko subjektua eta osagarria. 2. egitura: iragangaitza: itzultzeari dagokion argumentua ez da esplizituki azaltzen eta alboko perpauseko argumentu baten arabera interpretatzen dugu: iragankorreko osagarriaren indizekidea da. O/S ardatza. Hizkuntzak erakusten digu hizkuntza ergatiboa dela sintaktikoki.

Ingelesaren kasu sistema

(1) a.	Father aita	returned itzuli-iragana	
	'Aita itzuli zen.'		
b.	Mother ama	returned itzuli-iragana	
	'Ama itzuli zen.'		
c.	Mother ama	saw ikusi-iragana	father aita
	'Amak aita ikusi zuen.'		
d.	Father aita	saw ikusi-iragana	mother ama
	'Aitak ama ikusi zuen.'		

1a perpaus iragangaitza da, aditz iragangaitza eta argumentu bat du. Argumentuak Ø marka.

1b berdina da.

1c/1d perpaus iragankorrek dira, bi argumentu hartzen dituzte, iragankorreko subjektua eta osagarria. Osagarrian ez dago marka morfologiko espliziturik.

Sistema neutroa da, S A eta O ez dira markatzen. Ez dagoela bata bestetik desberdintzen duen marka morfologikorik. Ordenagatik bereizten dira funtzio sintaktikoak, SAO hurrenkera duelako.

I SAW HER. Hizkuntza nominatibo-akusatiboa. I nominatiboa da eta *her* akusatiboa.

1.2. Ingelesaren juntadura perpausak

(2) a.	Father aita	returned itzuli-iragana	and eta	saw ikusi-iragana	mother ama
	'Aita itzuli zen eta ama ikusi zuen.'				
b.	Father aita	saw ikusi-iragana	mother ama	and eta	returned itzuli-iragana
	'Aitak ama ikusi zuen eta (aita/*ama) itzuli zen.'				

2a. egitura iragangaitza, bigarrena iragankorra. Ama osagarria da, beraz, subjektua isilpean dugu, iragankorreko subjektua. Kategoría isil bat dago iragangaitzeko subjektuaren arabera interpreta daitekeena. (S/A pibotea)

S/A ardatza du, beraz, nominatibo-akusatibo hizkuntza da, baina ez kasu markari dagokionez.

2.b-n, lehenengoa, perpaus iragankorra da, bi argumentu hartzen ditu. Bigarrena, aldiz, iragangaitza. Irangaitzeko subjektu hori aitaren indizekidea da, alegia, iragankorreko subjektuarena.

1.3ko pasiboa antipasiboekin alderatu.

1.3. Egitura pasiboa

(3) a.	Father aita	saw ikusi-iragana	mother ama
	'Aitak ama ikusi zuen.'		
b.	Mother ama	was seen ikusi-?	by father P aita
	'Aitak ama ikusi zuen.'		

3a egitura iragankorra, A (aita) eta O (ama).

3b Egitura pasiboa da, perfrasien bitarteko markapen morfologikoa. Osagarria iragangaitzeko subjektu bihurtu da. Irangankorreko subjektua adjunktua (Sprep).

Egitura iragangaiztu egin da BOZ mekanismoaren ondorioz. Argumentuen funtzio sintaktikoak irauli egiten dira, ez ordea rol tematikoa.

1.4. Ingelesaren juntadura perpausak berriro

- (4) a. Mother was seen by father and returned
 ama ikusi-? P aita eta itzuli-iragana
 'Aitak ama ikusi zuen eta ama (*aita) itzuli zen.'
- b. Mother returned and was seen by father
 ama itzuli-iragana eta ikusi-? P aita
 'Ama itzuli zen eta aitak ikusi zuen.'

4a. Egitura pasiboa egitura iragangaitzarekin. S/S

Pasiboari esker, O iragangaitzeko subjektu bihurtu

Biziduntasunaren hierarkia.

Hierarkiaren oinarrian bizigabeak diren entitateak adierazten dituzten ISak.

Gailurra

Oinarria

1./2. pertsonak → Izaki bizidunak → Gizaki ez diren bizidunak → Bizigabeak

Osagarriaren markapen bereizgarriari dagokionez erdian zatitzen da (1/2p izaki bizidunak). Behin haustura gertatzen denez gero, eskumatara jada ez dugu horrelako fenomenorik aurkituko. Ergatibotasunari dagokionean, Djerbaleran bezalako hizkuntzetan, 1. eta 2. pertsona izenordainetan ergatibotasuna egongo da, eskumatara ez.

Prototipikoki espero den subjektuari ez zaio markarik ezartzen. Adb, *ni* eta *kolakau*-n prototipikoki espero da *ni* izatea subjektua.

Komunztadura sistemez

- com-o / veng-o. → Subjektu komunztadura adierazten digu. Marka subjektuaren araberakoa da.

Forma bera erabiltzen dugu *yo como cerezas* esateko. Osagarriari dagokionez, pertsona izenordain atonoak edo klitikoak erabil ditzakegu (*lo, las*). Hizkuntza batzuetan subjektu komunztadura, beste batzuetan subjektu eta osagarri komunztadura eta beste batzuetan subjektu, osagarri eta zehar-osagarri komunztadura. Beraz:

- SUB KMA
- OSG KMA
- ZO KMA

Euskaraz ba al dugu subjektu komunztadurarik?

- Ni goiz etorri nauk/naun. → Alokutibo markak ere komunztadura markak dira. Baina zertan desberdintzen dira dut-ekin? **-k/-n** markak ez dagozkio perpauseko argumentuetako bateri ere, baizik eta mintzakideari. Beraz, komunztadura argumentalak eta komunztadura ez-argumentalak bereizi behar ditugu.

- Yo com-o
- Yo veng-o

A eta S-k morfema bera dute. Komunztadura sistema akusatiboa. Ez dago osagarri komunztadura.

- nauka. hark (A) - ni (O). Subjektu komunztadura \emptyset eta osagarri komunztadura absolutiboan
- nago. 1SG (Sn-)
- daukat. erroa (uka) - 1SG.ERG (A-t) - zerbait (On-). Ergatibo komunztadura marka

Sistema ergatiboa. Iragangaitzeko subjektuak eta iragankorreko osagarriak marka bera dute, eta marka desberdina du iragankorreko subjektuak. a eta b adibideek absolutibo komunztadura marka. Komunztadurarekin kasuarekin gertatzen zaigun gauza bera, subjektuak desberdin gertatzen dira eta iragangaitzeko subjektuari osagarriari egozten zaion kasu bera egozten zaio. Euskaraz ez dugu subjektu komunztaduraz edo osagarri komunztaduraz hitz egiten, baizik eta ergatibo edo absolutibo komunztaduraz.

- | | | | | |
|--------|----------------------------|-----------------------------|-----|----------------|
| (1) a. | Tam | u -himili- u | po | a -nae. |
| | you(SG) | 2SG-send-1SG | and | 1SG-go |
| | 'You sent me and I went.' | | | |
| b. | a -gale- ya | 1SG-see-3SG | | |
| | 'I saw him' | | | |
| c. | Wam | i -gota. | | |
| | boat | 3SG-arrive | | |
| | 'The boat arrived.' | | | |
| d. | Niha | i -higu- ya . | | |
| | salt | 3SG -draw-3SG | | |
| | 'She drew the salt water.' | | | |

- Perpaus iragangaitzaren subjektua (S) **a**-rekin markatu
- a esaldiko perpaus iragangaitzeko subjektua (S) eta b perpaus iragankorreko subjektua berdin markatzen dira. 1SG berdin markatu A edo S izanda.
- Perpaus iragangaitzeko subjektua **i**-rekin markatu.
- S eta A subjektu bietarako komunztadura marka bera dugu (**i**-) eta osagarriarentzat bat bera (**ya**-)

Hizkuntza honek subjektu komunztadura eta objektu komunztadura ditu, sistema nominatibo-akusatibo bat da.

1.1. Lakhotera lantzen

- (1) a. **ma-kte**
1SG-hil
'Hark ni hil ninduen.'
- b. **wa-kté**
1SG-hil
'Nik hura hil nuen.'
- c. **wa-níwâ**
1SG-igeri egin
'Nik igeri egiten dut.'
- d. **ma-t'a**
1SG-hil
'Ni hiltzen naiz.'

ma-. Iragankorreko osagarria (O) eta iragangaitzeko subjektua (S) markatzen du. ERGATIBOA

wa-. Iragankorreko subjektua (A) eta iragangaitzeko subjektua (S) markatzen du. AKUSATIBOA

c. perpausean *igeri* aditza dugu, ekintza aditza da baina iragangaitza. Aditz inergatiboa da. Ergatibotasun erdibitua.

- A → **wa-**
- S → **wa-**

Iragangaitzeko subjektu batzuk A bezala markatzen ditu eta beste batzuk O bezala.

Bi marka morfologiko esleitzen zaizkio iragangaitzeko subjektuari (S). Komunztadura sistemetan ere erdibitzeak gertatzen dira. Kasu honetan, aditzaren

semantikarekin zerikusia izan ohi du. Aditzetako batzuek egilea eskatzen dute, ekintza aditza denean (*igeri*), eta beste batzuek gaia

Lakhotera bi modutara dei daiteke:

- Badago beste sistema bat: **Aktiboa**. Iragangaitzeko subjektuak bi markapen morfologiko dituenean, hizkuntza **aktiboa** da. Hau hizkuntza ergatiboetatik bereizten dute.
 - Kasua rol tematikoetan oinarrituz ezartzen da, ez funtzio sintaktikoen arabera.
- Ergatiboa da nahiz eta erdibiketa duen. (Dixon)

Euskara hizkuntza aktiboa edo ergatiboa ote da?

S (abs abs)

S (Abs erg)

- *Hil*. Gaia (abs) eskatzen duen aditza. INAKUSATIBOAK
 - ABS KS IZAN ABS KMA
- *Jolastu*. Egilea (erg) eskatzen duen aditza. INERGATIBOAK
 - **ERG KS *EDUN ERG KM**
 - Erdibiketa gertatzean iragangaitzeko subjektuari ergatiboa ezartzen zaio, baita iragankorrekoari ere.

Aditz batzuekin S → A bezala markatzen da eta beste batzuekin S → O bezala.

Egile rola ezartzen duen aditza aditz inergatiboa da. Aditz inergatibo prototipikoak:

- Komunikazio aditzak
- Ekintzak adierazten dituzten aditzak
- [*izen + egin*] egiturakoak dira: **Inergatiboak**
- Borondaterik gabeko prozesu fisiologikoa. *negar egin*

Batzuetan iragankorrak direla pentsarazten gaituzte, aditz laguntzailea *EDUN errokoa delako, edo subjektuak ergatibo komunztadura duelako

1.1. Lazera lantzen

- (2) a. bere-k imgars
 umea-? 3SG.negar egin
 'Umeak negar egiten du.'
- b. bere-Ø oxori-s doskidu
 umea-? etxea-DAT 3SG-gelditu (stay)
 'Umea etxean gelditu zen.'
- c. baba-k mečaps skiri-s cxeni-Ø
 aita-? 3SG.eman.3SG.3SG umea-DAT zaldia-?
 'Aitak zaldia eman zion bere umeari.'

a. Iragangaitza. *negar egin* aditz inergatiboa da. Iragangaitzeko subjektuak ergatibo kasu marka darama.

b. Iragangaitza. Kasu honetan iragangaitzeko subjektua absolutiboz markatzen da.

c. Iragankorra. Aita (A)

Subjektu erdibituko hizkuntza edo sistema aktiboa dugu. Iragangaitzeko subjektuari ez zaio ezartzen beti osagarriari ezartzen zaien marka bera. Absolutiboa edo ergatiboa ezarri diezaiokegu.

Orain arte perpausak aztertzerako orduan erabili ditugun osagaiak: A O, aditzak, eta ADJ. BOZari dagokionez, argumentuak gaineratzeko edo kentzeko estrategiak (pasiboa, antipasiboa...) daudela esan dugu orain arte. Argumentu bat kentzen dugunean, funtzioak berregituratu egiten dira. Bestetik, argumentuak gaineratzean, subjektu bat edo osagarri bat gaineratuko dezakegu.

- Subjektua gaineratu → Arazlea
 - Nik liburua irakurri → Irakasleak (niri) liburua irakurrarazi dit. Araziak beste kasu bat hartzen du.
- Osagarria gaineratu → Aplikatiboa
 - Osagarri hori nonbaitetik atera beharra dago, printzipioz periferia sintaktikotik. Goratzen den argumentua adjunktua bat izango da.

4. GAIA: APLIKATIBOAK

Euskarazko argumentuak iragankorreko subjektua (A), objektua (O) eta datibodun zehar osagarria (ZO) dira. Argumentuek kasua jasotzen dute eta komunztadura argumentala sortzen da. Honez gain, adjuntuak ditugu, Postposizio sintagmak. Aplikatiboetan, adjuntua zena objektu bilakatuko da, hau da, argumentu bat gaineratuko zaio egiturari.

- Morfema aplikatibo bat daukate
- Osagarria gaineratzen da

Aplikatiboan argumentu bat gehitzeak ez du zertan egitura iragankorra ekarri behar. IRAGANGAITZ DATIBODUNAK dira. (argumentu 2ko iragangaitzak)

Ibili zait. Subjektua Ni da, datiboz markaturiko beste elementu bat dugu. Iragankorra edo iragangaitza da? Iragangaitza dela justifikatzeko arrazoiak

- IZAN aditz laguntzailea dugu *edun beharrean. IZAN laguntzaile iragangaitz bat da.
- Absolutiboz markaturiko subjektua
- Ez daukagu ergatibo komunztadurarik.

Polinsky-ren arabera, morfema aplikatibo gabe ez da egitura aplikatiboa. Ingelesaren gramatikan, **Osagarri bikoitzeko egiturez** hitz egiten da, ez aplikatiboez. Polinskyk beraz, egitura hauek eta aplikatiboak bereizten ditu.

Pasiboek, antipasiboek eta inperzonalek argumentuak kentzen eta adjuntu bihurtzen dituzten bitartean, hemen kontrakoa gertatzen da. Bi argumendu ditugu eta argumentu bat gaineratzen dugu, **periferia sintaktikotik** ateraz. Nagusiki P sintagmak izaten dira.

1.1 Osagarri bikoitzeko egiturak

1.1.1 Ingelesa

- (1) a. John gave some letters to Mary
John eman gutun batzuk (gaia) P Mary (helburua)
'*Johnek Maryri gutun batzuk eman zizkion.*'
- b. John gave Mary some letters
'*Johnek Maryri gutun batzuk eman zizkion.*'
- c. *John gave some letters Mary
d. *John gave to Mary some letters

1a. Ingelesak SAO hurrenkera du. Egitura iragankorra dugu, A (John), O (some letters) eta adjuntu bat (to Mary).

1b. Egitura ditransitiboa da. 1a-n adjuntu zenak funtzio sintaktikoan goratu egin da preposizioa galduz eta osagarri bilakatuz (Mary). Zergatik da osagarria? Osagarri bati dagokion lekuan dagoelako eta preposizioa galdu

duenez, argumentu bihur daitekeelako.

1c. Perpaus agramatikala da. Mary osagarri bihurtu bada, aditzaren ostean egon beharko litzateke.

1d. Agramatikala da osagarriaren posizioan egoteko preposizioa galdu beharko lukeelako.

1.2.1 Erruandera

- (2) a. Umwaana y-a-taa-ye igitabo mu maazi
 umea SP-PAST-bota-ASP liburua P (IN) ura
 'Umeak liburua bota du uretara.'
 ('The children has thrown the book into the water.')
- b. Umwaana y-a-taa-ye-mo amaazi igitabo
 umea SP-PAST-bota-ASP-IN ura liburua
 'Umeak liburua bota du uretara.'
 ('The children has thrown the book into the water.')

gaineratu.

Txitxebra hizkuntzan, O komuntadura izanez gero, osagarria isil daiteke. Pasiboa ere badu.

- (1) a. Mikango yanu i-na-thamangits-a mbuzi zathu
 lions your SP-past-chase-ASP goats our
 'Your lions chased our goats.'
- b. Mikango yanu i-na-zi-thamangits-a mbuzi zathu
 lions your SP-past-chase-OP-ASP goats our
 'Your lions chased our goats.'
- c. Mikango yanu i-na-zi-thamangits-a
 lions your SP-past-chase-OP-ASP
 'Your lions chased them.'
- d. Mbuzi zathu zi-na-thamangits-idw-a (ndi mikango yanu)
 goats our SP-past-chase-PASS-ASP (by lions your)
 'Our goats were chased (by your lions).'

dagoelako. Rol tematikoak ez dira aldatzen. Adjunktua isil daiteke. Goratu egin da, osagarritik subjektura.

- (2) a. Amayi a-ku-umb-ir-a mwana mtsuko
 woman SP-PRES-mold-for-ASP child waterpot
 'The woman is molding the waterpot for the child.'
- b. ?? Amayi a-ku-umb-ir-a mtsuko mwana
 woman SP-PRES-mold-for-ASP waterpot child
 'The woman is molding the waterpot for the child.'
- c. Amayi a-ku-mu-umb-ir-a mtsuko mwana
 woman SP-PRES-OP-mold-for-ASP waterpot child
 'The woman is molding the waterpot for the child.'
- d. Amayi a-ku-mu-umb-ir-a mtsuko
 woman SP-PRES-OP-mold-for-ASP waterpot
 'The woman is molding the waterpot for him.'

daukagu eta hitz hurrenkera aldatzen da. Behin onuraduna osagarri bihurtuta komuntadura eragin dezake.

2d. Onuraduna isildu egin da. Osagarri baten jokabidea erakusten du.

2a. Adjunktua den Sprep bat dugu periferia sintaktikoan.

2b. Preposizioa aditzari inkorporatzen zaio eta ez daukagu sintagma baten buru den preposiziorik. Jada ura ez da adjunktua, osagarri bihurtu da.

2 osagarri orain, egitura ditransitiboa. Argumentu bat

1a. 2 argumentu + subjektua komuntadura.

1b. Subjektua komuntaduraz gain, osagarri komuntadura.

1c. Osagarria isildu egin da. Beraz, osagarri komuntadura duenean, osagarria isil daiteke.

1d. Iragankorreko subjektua beheratu da, eta adjunktua bihurtu da. Morfema pasibo bat

2a. Rol periferikoa duen sintagma bat dugu, adjunktua. Morfema aplikatibo bat dugu (ir). Preposizioa aditzera inkorporatuko da, hitz hurrenkera aldatuz.

2b. Lehenengo gaia agertzen da eta gero onuraduna. Aditzaren ondotik goratutako osagarria (onuraduna) joan beharko litzateke. Egitura aplikatiboa bada gaiak ez dauka osagarri logikoari dagokion lekuan azaltzerik.

2c. Osagarri komuntadura

Aplikatio ez-simetrikoak

Osagarri kanoniko bati dagozkion ezaugarriak erakusten ditu. Forma ditransitibo horretan bi osagarri ditugu: goratu duguna eta osagarri logikoa. Baldin eta aplikatio ez-simetrikoa bada, orduan goratutako osagarria da osagarri jokabidea erakusten duena; hots, osagarri kanoniko baten ezaugarriak erakusten dituena:

- Osagarri komunztadura erakuts dezake
- Isil daiteke
- Pasiboaren subjektua izan dezake
 - Beraz, pasiboa sortzen badugu egitura ditransitibo baten gainean, osagarri bat izango dugu.

(3) a. *Amayi a-ku- u-umb-ir-a mwana mtsuko woman SP-PRES- OP -mold- for -ASP child waterpot 'The woman is molding the waterpot for the child.'
b. *Amayi a-ku- u-umb-ir-a mwana woman SP-PRES- OP -mold- for -ASP child 'The woman is molding it for the child.'

3a. Osagarri komunztadurak ezin dio gaiari eragin, goratu dugun osagarriari baizik (onuradunari).

3b. Osagarri logikoak ezin du komunztadura eragin, ezta isildu ere.

Osagarri asimetrikoak dira, batek egin dezakeena besteak ezin du egin. Goratzen duguna da osagarrien jokabidea hartuko duena.

(4) a. Kalulu a-na-gul-ir-a mbidzi nsapato hare SP-PAST-buy- for -ASP zebras shoes 'The hare bought shoes for the zebras.'
b. Mbidzi a-na-gul- ir-idw-a nsapato (ndi kalulu) zebras SP-PAST-buy- for -PASS-ASP shoes by hare 'The zebras were bought shoes by the hare.'
c. *Nsapato zi-na-gul- ir-idw-a mbidzi (ndi kalulu) shoes SP-PAST-buy- for -PASS-ASP zebras by hare 'Shoes were bought for the zebras by the hare.'

4a. 2 osagarri, preposiziorik gabe agertzen da eta rol periferikoa du.

4b. Morfema aplikatioa dugu. Pasiboaren gainean eraikitako aplikatioa da. Subjektua da onuraduna. Aplikatioari esker adjunktua zena osagarri bihurtu eta

pasiboari esker onuraduna subjektu.

Bozak konbina daitezke, aplikatioa pasiboarekin konbina daiteke.

Beraz, osagarriak asimetrikoak dira eta ez dute berdin jokatuko. Goratzen duguna da osagarriak bezala jokatzen duena. Berdin jokatuko balute, simetrikoak izango liriateke.

Pasibo eta aplikatioak konbinatu daitezke.

Onuradunak komunztadura eduki dezake eta isildu daiteke.
Gaiak ez du komunztadura edukiko eta ezin da isildu.
EZ DUTE BERDIN JOKATZEN.

Adizki sintetikoak eta adizki analitikoak.

- a) *Nik liburua DAKART* (Jonentzat)
- b) *Nik Joni liburua DAKARKIOT*

-kar- erroa. Ekarri aditza, singularreko lehen pertsona ERG. Bi argumentu, A (*nik*) eta O (*liburua*)

dakarkiot-en aurrekoa oinarri hartuta argumentu bat gehiago daukagu: -o, datibo komunztadura. 3 argumentu, 3ek komunztadura. Morfema bat gehiago aditzean. KI morfema aplikatiboa? Bigarren egituraren postposizioa galdu dugu, ez du komunztadurarik ez badugu osagarri bilakatzen.

- argumentu bat gaineratzen du: zehar osagarria
- argumentu izatearen ondorioz komunztadura agertzen da aditz inflexioan: -o-
- argumentu berria isildu daiteke: *nik* (-) *liburua dakarkiot*

2.1 Onuraduna					
(1)	Yohaâni John	y-oher-er-eje he-send-BEN-ASP	Mariya Mary	ibâruwa letter	
	<i>'John sent a letter to Mary.'</i>				
(2) a.	Íbâruwa letter	y-oher-er-ej-w-e it-send-BEN-ASP-PASS-ASP	Mariya Mary	na Yohaâni by John	
	<i>'The letter was sent to Mary by John.'</i>				
b.	Mariya Mary	y-oher-er-ej-w-e she-send-BEN-ASP-PASS-ASP	ibâruwa letter	na Yohaâni by John	
	<i>'Mary was sent a letter by John.'</i>				

(1) Ohiko egitura aplikatibo bat da. Morfema aplikatiboa eta bi osagarri: *Mary* (onuraduna) eta *letter* (gaia).

(2) Egitura aplikatibo baten gaineko pasiboa dugu:

- Argumentu bat kendu eta adjunktua bilakatu da
- Osagarri logikoa pasiboko S da. Iragankorreko subjektua adjunktua.

Pasiboko subjektua izan daiteke

- Goratutako osagarria (onuraduna)
- Osagarri logikoa (gaia)

Beraz, osagarri simetrikoak dira.

(3) a.	Yohaâni John	y-a-y-oher-er-eje he-PAST-it-send-BEN-ASP	Mariya Mary	
	<i>'John sent it to Mary.'</i>			
b.	Yohaâni John	y-a-mw-oher-er-eje he-PAST-her-send-BEN-ASP	ibâruwa letter	
	<i>'John sent a letter to her.'</i>			
c.	Yohaâni John	y-a-yi-mw-oher-er-eje he-PAST-it-her-send-BEN-ASP		
	<i>'John sent it to her.'</i>			

3a. Osagarri komunztaduraren ondorioz, osagarri logikoa isildu egin da.

3b. Onuradunak eragin du komunztadura eta isildu egin da.

3c. Bi komunztadura marka eta osagarri biak isildurik.

Biek ala biek jokabide BERA.

Lokatiboa.

(4) a.	Umwáana child	y-a- taa-ye he-PAST-throw-ASP	igitabo book	mu P (IN)	máazi water	<i>'The child has thrown the book into the water.'</i>
b.	Umwáana child	y-a- taa-yé-mo he-PAST-throw-ASP-IN	amáazi water	igitabo book		<i>'The child has thrown the book into the water.'</i>
(5) a.	Umwáalímu teacher	y-oohere- je he-send-ASP	igitabo book	kw-i ishuûri P (TO)	ishuûri school	<i>'The teacher sent the book to the school.'</i>
b.	Umwáalímu teacher	y-oohere- jé-ho he-send-ASP	iishuûri school	igitabo book		<i>'The teacher sent the book to the school.'</i>

Egitura aplikatibo bat. Oraingoan goratutako osagarriaren gaia ez da onuraduna, lokatiboa baizik.

(6) a.	Ishuûri school	ry-oohere- j-w-é-ho it-send-ASP-PASS-ASP-TO	igitabo book	n-umwáalímu P (BY)	ishuûri teacher	<i>'The school was sent the book to by the teacher.'</i>
b.	*Igitabo book	cy-oohere- j-w-é-ho it-send-ASP-PASS-ASP-TO	ishuûri book	n-umwáalímu P (BY)	ishuûri teacher	<i>'The book was sent to the school by the teacher.'</i>

6a. Egitura aplikatibo pasiboa. Orain lokatiboa da perpaus pasiboko S

6b. Osagarri logikoa ordea, ezin da Subjektu izan. Aplikatibo ez-simetrikoa.

Hizkuntza batean gaiaren araberako osagarriak egon daitezke beraz.

(7) a.	Umwáalímu teacher	y-a-ry-oohere- jé-ho he-PAST-it-send-ASP-TO	igitabo book			<i>'The teacher sent the book to it.'</i>
b.	*Umwáalímu teacher	y-a-cy-oohere- jé-ho he-PAST-it-send-ASP-TO	iishuûri school			<i>'The teacher sent it to the school.'</i>

7a. Goratutako osagarriarekiko komunztadura.

7b. Osagarri logikoa ezin daiteke isildu.